BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Prentsa-oharra** 07/02/21

# Batzar Nagusiek web-gune barriztua dabe

- ***www.jjggbizkaia.net* web-gune barriak edukin gehiago ditu eta guztiz erabilterraz da ezintasundunentzat.**
- **Erakunde honen etxeak —Gernikako Batzarretxea, Abellanedakoa eta Gerediagakkoa— era birtualean bisitatzeko aukerea emoten dau:**
- **Bizkaitarrek zuzenean ikusi leikiez Gernikako batzarretxeko Batzar Nagusiak**
- **Erakunde honetan aztertutako gaiak aurkitzeko bilatzaile arina dauka.**

Bizkaiko Batzar Nagusiek aurrera egin dabe informazinoaren teknologia barriakaz, eta www.jjggbizkaia.net helbidera gaurtik aurrera sartu daitezan bizkaitarrek era erraz-errazean aurkituko dabe Foru Erakunde historiko honen jardunbideari buruzko edukin gehiago. Web-gune barriaren diseinua erraza da, erabilgarria eta minimalistea, eta erabilterraztasunaren inguruan nazino artean ezarritako arauak zehatz-mehatz beteten ditu.

Jende guztiarentzat dago pentsatuta, bardin ohiko zerbitzuak ikusteko sarri sartzen diran herritarrentzat zein noizik behinean sartzen dan edonorentzat. Web-gunea zentzumenezko ezintasunen bat daukienentzat guztiz erabilterraz izan daitela eta edukin guztiak euskeraz zein erderaz egotea gura izan dabe Batzar Nagusiek; hainbat eta hainbat edukin ingelesez eta frantsesez be ikusi leitekez.

Informazinoa hiru atal nagusitan dago eratuta. Lehenengoan, Erakundeari berari buruzko betiko argipideak agertzen dira: egoitzak, antolakuntza, foru-araupidea, aldizkari ofizialak eta Batzar Nagusien osakerea, oraingoa eta antxinakoa. Bilbon, Gernikan, Abellanedan eta Gerediagan ditugun egoitzei buruzkoak be hortxe agertzen dira, eta hortxe dagoz be Enkarterrietako Museoari buruzko argipideak —Bizkaiko Batzar Nagusien ardurapekoa da-ta Museo hori— eta Gernikako Arbolari buruzkoak, euskal herritarren ezaugarririk unibertsalena da-ta.

Web-gunearen erdialdean gaurkotasunagaitik eta gizarte-interesagaitik azpimarragarri izan daitekezan urtean zeharko albisteak ikusi leitekez. Atal honek "Deiadarra" dau izenburutzat eta politika-jardunbidetik aldenduago dagozan albisteen boletina da. Eta hirugarren atalean Batzordeen eta Batzar Nagusien batzarren informazinoa jasoten da. Horretarako, bada, edukin zehatzak —testuak (pdf), entzutezkoak (mp3) edo bideoak— aurkitzeko bilatzaile arina dago

Web-gune barriak aukera asko eskaintzen ditu, esaterako Gernikako Batzarretxean egiten diran Batzar Nagusiak zuzen-zuzenean ikusteko modua, edo Batzar Nagusien egoitzak eta lekurik adierazgarrienak era birtualean bisitatzea, edo Osoko Batzarretan

edo Batzordekoetan Batzarkideek esandakoak irakurri ahal izateko batzar-egunkariak eskuratzea.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Nota de prensa:** 22/02/07

# Las Juntas Generales renuevan su página web

- **El nuevo sitio *www.jjggbizkaia.net* incorpora más contenidos y se convierte en un lugar enteramente accesible para las personas discapacitadas**
- **Ofrece la posibilidad de realizar visitas virtuales a los edificios más emblemáticos de esta institución como las Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Geradiaga.**
- **Las vizcainas y vizcaínos podrán seguir en directo los plenos que se celebren en la Casa de Juntas de Gernika.**
- **Incorpora un potente buscador para facilitar la difusión de los contenidos de las sesiones de esta institución**

Las Juntas Generales de Bizkaia evolucionan con las nuevas tecnologías de la información. Las vizcaínas y vizcaínos que se acerquen a la dirección *www.jjggbizkaia.net* encontrarán a partir de hoy, de forma sencilla y rápida, un mayor número de contenidos sobre la actividad de esta histórica institución foral. El nuevo sitio combina un diseño funcional, sencillo y minimalista, con la aplicación de las normas más exigentes en materia de accesibilidad.

La nueva página web está pensada para todos los públicos, tanto ciudadanos de los servicios habituales que nos visitan frecuentemente como personas que acceden puntualmente. Se ha puesto especial énfasis en desarrollar una versión completamente accesible a las personas con dificultades sensoriales y a que todos sus contenidos estén visibles, tanto en euskera como en castellano. Buena parte de ellos se ofrecerán también en inglés y francés.

La información se estructura en tres grandes bloques. En el primero, se apuesta por una información fija sobre la institución: sedes, organización, normativa foral, boletines oficiales y composición actual e histórica de la Cámara foral. En este apartado se ha reservado un espacio para que el internauta acceda a cualquiera de las cuatro sedes oficiales de las Juntas: Bilbao, Gernika, Abellaneda y Geradiaga. Además, se incorpora información detallada sobre la actividad del Museo de las Encartaciones, propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia, y, en especial, sobre el árbol de Gernika, el símbolo más universal de los vascos.

La parte central de la página se ha reservado para aquellas informaciones que destaquen a lo largo del año por su actualidad e interés social. Este apartado incorpora bajo el nombre de “Deiadarra”, un boletín de noticias alejado de la actividad política. Y, en un tercer bloque, se incorpora información sobre la convocatoria de las comisiones y los plenos, con un potente buscador para encontrar contenidos específicos, bien en formato texto (pdf), audio (mp3) o video.

Entre las posibilidades que ofrece esta nueva página destaca la posibilidad de seguir en directo todos los plenos que se celebren en la Casa de Juntas de Gernika, una potente herramienta de visualización para realizar visitas virtuales a los edificios y lugares más emblemáticos, y un diario de sesiones con el contenido de todo lo que los apoderados y apoderadas debatan en las comisiones y en los plenos de las Juntas Generales de Bizkaia.